

KONTU-KONTARI**NIK DEBRU DAKITA! ⁽²⁶⁾**

XX. mendeko bigarren hamarkadan Nicolas Lamberger frantses hizkuntzalari baskofiloa Baigorri aldera iritsi zen eskualdeko karta edo mapa bat egiteko asmoz. Hizkuntza guztiak mi-resten bazituen ere, euskara zen bere kuttuna. Louis-Lucien Bonaparte printzeak egindako mapa dialektalak, behin eta berriro, ikertuak zituen, eta Wilhelm von Humbold-ek euskaldunei buruz idatzitako liburu eta prentsa artikulua buruz zekizkien. Euskararekiko sentitzen zuena ez zen amodioa, pasioa baizik. Bazekien Baigorri aldeko toponimia berezi samarra zela, eta bere asmoa, bertakoekin mintzatu ondoren, karta zehatz bat egitea zen. Eta horrela, bere asmoa bete nahirik, Baigorri aldera etorri zitzaigun zaldiz.

Bi aste eskas zeramatzan Baigorri eta ordurako egin beharreko ia guztia buruturik zeukan. Bertako artzain eta laborari gehienek bazuten Monsieur Lamberger-en berri, beraien artean hau eta hori galdezka ibilia baitzen. Halako batean, Mixel Kurutxet-en bordara bertaratu zen. Aldameneko pentzean zen artzaina ardiak zaintzen. Monsieur Lamberger harengana hurbildu eta agurtu eta bere burua aurkeztu ondoren, galderak egiteari ekin zion:

– Nola du izena leku honek?

²⁶ Nik deabru al dakit!

- Lizardoi. —laborariak erantzun eta hizkuntzalariak eskuan zeraman kaier txipian horrela idatzi.
- Eta gibelego harkaitz handi hori?
- Haitzandi. —laborariak erantzun eta hizkuntzalariak bere kaier txipian idatzi.
- Eta iturri hori?
- Ureder.
- Eta hango mendixka?
- Hegiluze.
- Eta iturri ondoko pentzea?
- Iturralde.
- Eta hango oihana?
- Hariztoi.
- Eta horko pettarra?
- Eta zilo hura?
- Eta hango borda?
- Eta ondoko ordokia?
- Eta horko belardia?

Oren erdia zeraman galdezka eta jadanik, Mixel artzaina biziki aspertua zen. Haatik, hizkuntzalariak galdezka jarraitzen zuen.

- Eta urruneko gailur hura?

Hura aski zelakoan, *Nik debru dakita!* ihardetsi zion artzain haserretuak, eta hizkuntzalariak horrela idatzi zuen bere kaier txipian.

Handik bi urtetara, hizkuntzalari bera azaldu zen bere zaldi gainean Mixel Kurutxet-en bordan. Poz-pozik zetorren eta sakelatik berak egindako karta atereaz, artzainari eman zion, bi urte lehenago emandako laguntza baliosa bihotz-bihotzez eskertuz.

Hizkuntzalaria bordatik aldendu zenean, Mixel artzainak mapa begiratu zuen. Bertan zen berak emandako informazio guztia: Lizardoi izeneko bazterra, Haitzandi izeneko harrizarra, Ureder izeneko iturri garbia, Hegiluze izeneko mendixka, Iturralde izeneko pentzea, Hariztoi izeneko oihana... Informazio guztia ona zen, dena borda gaineko gailurrarena izan ezik, kartan *Nik debu dakita* izen bitxiaz birbataiatua azaltzen baitzen.

Oharra: Ipuin hau Luzien Etxezaharreta adiskideak kontatutako narrazioan oinarritzen da.

Joseba Aurkenerena Barandiaran
(Urruña)